

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU
ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2024ko abenduaren 18ko bilera arruntean (4/24 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

13. gaia.- Leioa Laguntza Zentroko erizaintzako gainbegiraleen hiru (3) lanpostu amortizatzea eta zentro horretan bertan erizaintzako gainbegiraleen bi (2) lanpostu eta gainbegirale koordinatzailearen lanpostu bat (1) sortzea.

«**Lehenengoa.**- Leioa laguntza-zentroko erizaintzako gainbegirale txandakakoaren bi (2) lanpostu amortizatzea, eta Leioako laguntza-zentroko erizaintzako gainbegirale txandarik gabeko bi (2) lanpostu bata bestearen ostean eta bata bestearekin sortzea.

Bigarrena.- Leioa laguntza-zentroko erizaintzako gainbegirale txandakakoaren lanpostu bat (1) amortizatzea, eta Leioa laguntza-zentroko erizaintzako gainbegirale koordinatzailearen lanpostu bat (1) sortzea, bata bestearen ostean eta bata bestearekin.

Hirugarrena.- Lanpostu berriak betetzeko ezaugarriak, betekizunak eta baldintzak eranskinean adierazitakoak izango dira, eta Erakundeko Lanpostuen Zerrendan jasota datozen kideko lanpostuei buruz adierazitako moduan adieraziko dira.

Laugarrena.- Erabaki honek, behar bezala argitaratu arren, erizaintzako gainbegiratze- eta koordinazio-lanpostuak eta gainbegiratze-lanpostuak betetzeko lehiaketa gauzatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena.- Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 10/2023 Foru Arauaren 25. artikuluan jasotako aurreikuspenarekin bat etorritik (I. kapituluko gastuen gehikuntza mugatzeari buruzkoa da), erantsitako txostena ikusita, hemen definitutako lanpostuen amortizazioak eta aldi berean sortzeak ez dakar I. kapituluko gastuen gehikuntzarik.

Seigarrena.- Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan, intranetean eta GUFEn web-orrian argitaratzeko agintzea».

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA 2024-12-27
GUFÉ-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

